

# **TABAKALERA- BASKEGUR SARIA**

## **OINARRIAK**

### **1 – HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK**

Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak (aurrerantzean, TABAKALERA), BASKEGUR eta EHUko Arkitektura Eskolaren laguntzaz, lehiaketa bat antolatu du, TABAKALERAko eraikinaren espazio publikoan ipiniko diren *hiri-altzariak* diseinatzeko. Helburua da esku-hartzeetan sormena eta berrikuntza sustatzea ekipamendu publikoek erabilera anitzak izan ditzaten. Ekipamendu horietarako gertuko egurra erabiliko da.

Tabakalerako espazio publikorako Masterplanak espazio publikoen multzorako estrategia koherentea irudikatzen du, eta hortik abiatuta, sormen garaikideko proiektu zehatza garatu nahi da, bigarren solairuko espazioaren/atondoaren erabilerei eta beharrei erantzuteko.

Lehiaketa Donostiako EHUko Arkitektura Eskolako ikasleentzat da. Beraz, proposamen berriak espero dira, Donostiako EHUko Arkitektura Eskolako ikasleek sari honetarako berariaz pentsatutakoak.

PFC ziurtagiria duen gertuko egurra material nagusi gisa erabiltzea izango da diseinu-proiektuaren ezinbesteko baldintza bat.

Besteak beste, honako irizpide hauek balioetsiko dira: proposamenen ekodiseinua, jasagarritasuna, bikaintasuna, berrikuntza eta bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa eta, bereziki, sormen garaikidean eta artea eta kultura zabaltzen diharduen zentroaren testuinguruan proiektuaren eginkizunari egokitzea.

Proposamen irabazlea Baskegurren bidez fabrikatuko da, eta, gerora, Tabakalerako bigarren solairuko atondoan instalatuko da.

#### **Baldintzak:**

##### **- \_\_\_ Jarduketa-eremua**

Tabakalera eraikineko bigarren solairuko eremu bat da, eta gaur egun Medialaben (mediateka eta herritarren esperientazio- eta sormen-laboretegia) atondo gisa funtzionatzen du. Adifen geltoki berriko obrak amaitutakoan, berriz, eraikinera sartzeko puntu berri bihurtuko da, etorkizunari begira, egungo trenbideen gainean plaza bat proiektatu baita. Kasu honetan, esku-hartzea finkoa da, altzariak ez mugitzeko eta nahigabe fluxu nagusiak ez eragozteko.

*“Solairu honetan laster sarbide berria irekiko denez eta, ondorioz, erabiltzaileen fluxuak sortuko direnez, Masterplanak oso muga definituak izango dituen eremua sortzearen*

aldeko apustua egiten du, eta espazio publikoan txertatuko da. Piezak berez antolatu beharko du inguruan gelditzen den eremua, eta egoteko espazioak eta harremanetarako espazioak bereiziko ditu”.

- Erabilerak eta eginkizunak

Aurretiaz definitutako espazioan esku hartzearen helburua da harrera-, atsedena-, topaketa- eta ikasketa-gune bat sortzea eta erreferentzia modura gutxi gorabehera 30 pertsona hartu ahal izatea.

- Egurra fabrikatzeko material gisa

Lehiaketaren helburua da fabrikazio-material gisa egurraren erabilera berritzailea sustatzea, beraz, proiektuek ezinbesteko elementutzat kontuan hartu beharko dute. Bereziki baloratuko da PFC ziurtagiria duten gertuko egurrak erabiltzea.

## **2 – LEHIAKETAREN FASEAK**

Proiektuak online entregatuko dira azaroaren 30eko 12:00ak baino lehen. Hala, posta elektronikoki bat bidaliko da, eta aurkeztu behar den dokumentazioa erantsiko da. Hona hemen helbide elektronikoa: [kontratazioak@tabakalera.eus](mailto:kontratazioak@tabakalera.eus)

Entregatzeko epemugatik jasotzen den dokumentazioa ezingo da aldatu.

Epaimahaiaren erabakia 2024ko urtarrilaren 31n jakinaraziko da.

Produktu irabazlea Baskegur enpresa fabrikatzailearen eta lehiaketako talde irabazlearen artean garatuko da teknikoki.

## **3- AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK**

Saria eskuratu ahal izateko, posta elektronikoki [kontratazioak@tabakalera.eus](mailto:kontratazioak@tabakalera.eus) helbidera honako agiri hauek bidali beharko dira:

- A eranskina. Parte hartzeko eskaera, PDF formatuan, proiekturako leloa barne. Helburua da partaideen anonimotua bermatzea.
- Panela PDF formatuan honako ezaugarri hauekin:
  - Osaera bertikaleko A1ean (594 cm X 841 cm) aurkezpena.
  - Hazbeteko 300 pixeleko gutxieneko bereizmena.
  - Gehieneko pisua: 10 MB
  - Proposamena identifikatzen duen proiektuaren leloa.
  - Proiektuaren deskribapen-memoria laburra, fabrikazioaren berezitasunak eta aurkeztu diren konponbide berritzaileak.

#### **4 – EPAIMAHAIAREN OSAERA**

Epaimahaia erakunde laguntzaileetako ordezkariak (TABAKALERA, ARKITEKTURA ESKOLA eta BASKEGUR) osatuko dute.

Epaimahaiak jasotzen diren proposamenak lehen aipatutako balorazio-irizpideen arabera baloratuko ditu, eta emaitza argitaratuko du. Ondoren, A eranskinak irekiko dira, hautagaiak aurkeztutako proiektuekin identifikatzeko.

Saria hutsik utzi ahalko da.

Epaimahaiaren emaitza apelaezina izango da, eta horren aurka ezingo da ezein mota edo izaerako erreklamaziorik edo errekurtsorik egin.

#### **5- SARIAK**

Saria proiektu irabazlea fabrikatzea eta ondoren TABAKALERAko espazio publikoan instalatzea izango da, dirutan 2.000 euro emateaz gain.

Epaimahaiak bi accesit eman ahalko dizkie bereizmen hori merezi duten lanei, eta dirutan 500 euro izango dira.

Sarien emaitzei buruzko jakinarazpenak eta prentsa-oharrak egingo dira, EAEko hedabide nagusietan banatzeko.

Erakunde laguntzaileek aurkeztutako proiektuak erakutsi ahalko dituzte, ikusgai bihurtu eta kalitateari balioa emateko.

#### **6- JABETZA INTELEKTUALA**

Egileek aurkeztutako lanen jabetza intelektualari eutsiko diote, baina ezingo dira erabili oinarri hauetatik kanpoko beste helburu batzuetarako, ez eta sarituak ere.

Partaideek deialdia egiten duen erakundeari bakarrik lagako dizkiote sariak eta emaitzak publiko egiteko ustiapen-eskubideak, hala nola aurkeztutako lanak argitaratzeko eta erakusteko.

Oinarri hauek aurrez ikusten ez dutena Jabetza Intelektualari buruzko azaroaren 11ko 1/96 Legeak, aldaketek eta aplikazioko gainerako lege-xedapenek arautuko dute.

#### **7- OINARRIAK ONARTZEA**

Sarietan parte hartuz gero, partaideek oso-osorik onartzen dituzte oinarriak eta ados egongo dira deialdia egin duenak aurkeztutako lanen dokumentazioa erabiltzearekin, baldin eta argitalpenak eta erakusketak egin nahi baditu.

Oinarri hauek interpretatzean edozein zalantza epaimahaiak ebatziko du, eta erabakia apelaezina izango da.

**A ERANSKINA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEA**

..... jaunak/andreak (IFZ zk.: .....,

..... jaunak/andreak (IFZ zk.: .....,

Helbidea:.....

Helbide elektronikoa:.....

Telefonoa:.....)

"Tabakalera – Baskegur" sariaren lehiaketan parte hartu nahi du honako **LELO** honen bidez: .....

Eta partaidetza-prozeduran parte hartzeko idatziz jasota gera dadin, honako adierazpen hau egiten dut.

.....n, 2023ko .....aren .....(e)(a)n

Sinatua: .....